



**2023KO URRIAREN 26KO**  
**EZOHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko urriaren hogeita seian, arratsaldeko seietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko batzarraldia egin asmoz. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- LAZKAOKO UDALAREN ONDAREZKO ASEGURUEN ETA ASEGURU PERTSONALEN KONTRATAZIOA: BIGARREN ARTXIBOAREN IREKIERAREN AURREAN, KONTRATAZIO MAHAIAREN PROPOSAMENA.-**

Lazkaoko Udalaren ondarezko aseguruaren eta aseguru pertsonalen kontratazio mahaiak 2023ko urriaren 16an bildu zen, 2. artxibo elektronikoaren dokumentazioa kalifikatzeko.

Aurkeztutako proposamenak aztertuta, mahaiak, V. Sortaren eskaintzen artean, MGS Seguros y Reaseguros, S.A. enpresak egindako eskaintzak balio anormalak edo desproporzionatuak zituela kontsideratu zuen. Hau horrela izanik, MGS Seguros y Reaseguros, S.A. enpresari bere eskaintza justifikatu zezala eskatu zion. Aseguru konpainiak justifikazioa aurkeztu zuen Euskadiko kontratatzailearen profilean, horretarako emandako epean.

Honen aurrean Udalaren aholkulari lanak egiten ari den Alkora enpresak zegokion txostena luzatu zuen, eta bertan MGSren esperientzia administrazio publikotako aseguru-etxe gisa, lizitazio honen antzeko bere arriskuen zorroa, bere giza baliabideak eta baliabide teknikoak eta azkenik bere negozio bolumenak kontuan harturik aurkeztutako justifikazioa ontzat eman daitekeela ondorioztatu zuen.

Honen guztiaren aurrean, kontratazio mahaiak 2023ko urriaren 18an egindako bilkuran, MGS Seguros y Reaseguros SAK aurkeztutako justifikazioa eta Alkoraren dagokion txostena aztertu ondoren, MGS Seguros y Reaseguros SAK aurkeztutako justifikazioa ontzat eman du, eta eskaintzaren balorazioa eta baldintzak justifikatutzat jo ditu.

Ondorioz, MGS Seguros y Reaseguros SAKen justifikazioaren onarpen proposamena kontratazio-organoari helaraztea erabaki du.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, MGS Seguros y Reaseguros enpresaren justifikazioa onartzea erabaki du.



II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO  
UDALA

